



# GAUR EGUNEKO BASOGINTZA SISTEMA FORESTAL ACTUAL



## GALDUTAKO BALIABIDEAK

## RECURSOS PERDIDOS


### 1- LURZORU-BALIABIDEEN GALERA / PÉRDIDA DE RECURSOS EDAFICOS

Gaur egungo Urdaibai Biosfera Erreserbako basoetako ustiapen-kudeaketak lurzuaren galera izugarria eta beraren barne-egituraren eraldaketa sorrarazten du. Pinua edo eukalipto lantzeko prestatze-lanak egin ondoren lurzuaren barne-egituraren galtzea eta lurzoru-galerak gertatzen dira. Pinudi baten baso-soilketaren ostean, oso ohikoak dira ondorengo praktikak:

- 1-Arestiko landaketaren motzondoak kentzea.
- 2-Lurzatiaren azaleko geruzaren harrotzea eta arrastratzea (bertako begetazioa eta sustraiak kentzeko).
- 3- Ripper izeneko gailuen bidezko lurzuaren aireberritzea eta drainatzea, lurzatiaren malda handieneko lerroa jarraituz.

Lurzoruaren prestatze-lan bortitzak jasan dituzten malda handiko lurzatietan 100 Tm/Ha-ko baino handiagoko lurzoru-galerak neurtu dira Urdaibai Biosfera Erreserban.

Emankortasun-galerak eta lurzuaren egituraren eraldaketak baso landaketan hazkuntza baldintzatuko dute epe ertain eta luzean. Horrela, aspektu honek Sektorearen errentagarritasuna baldintza dezake hurrengo urteetan.



Baso-luberri masiboak Sollube mendian 90. hamarkadaren hasieran  
Roturaciones forestales masivas en el monte Sollube a comienzo de la década de los 90

La explotación forestal, tal y como se lleva a cabo actualmente en los montes de Urdaibai, ocasiona una importante pérdida de suelo. Ocasionalmente tras la realización de las labores preparatorias del terreno que acogerá una nueva plantación de pino o eucalipto. Tras la corta a hecho o matarrasa de un pinar es bastante frecuente la realización de determinadas prácticas culturales tales como:

1. Arranque de tocones de la antigua plantación (destoconado).
2. Remoción y arrastre de la capa superficial del terreno (Decapado)
3. Aireación y drenaje del suelo con aperos denominados ripper, siguiendo la línea de máxima pendiente de la parcela (subsolado).

En Urdaibai se han llegado a constatar pérdidas superiores a 100 Tm/Ha de suelo en parcelas de elevada pendiente.

Tanto la pérdida de fertilidad como la alteración de la estructura del suelo, a medio-largo plazo van a condicionar el crecimiento de los cultivos forestales pudiendo condicionar este aspecto en un futuro cercano la rentabilidad del sector

### 2- BALIABIDE HIDRIKOEN GALERA / PÉRDIDA DE RECURSOS HIDRICOS

#### AKUIFEROEN SUNTSIKETA / DESTRUCCIÓN DE ACUIFEROS

Oraingo ustiapen-teknikek gainazaleko drainatzearen antolaketa-eza bultzatzen dute. Ondorioz, lurpeko akuiferoen betetzea eraldatuta suertatzen da, zeren eta, lurzuaren prestaketarako sortutako pistek eta makineriaren errodadek betiko ubidekin bat egiten baitute gainazaletik doan uraren bidea aldaeraziz.

Baliabide hidrikoaren gaineko eraginak erantzun zuzena du kontsumo-urarengan. Horren kopurua murrizten da eta beraren prezioa handitu egiten da, horniketa-ur horren arazketa-prozesuak berau garestitzen baitu. Gai hori oso garrantzitsua da Urdaibaiko Biosfera Erreserban, eskualde honetan ur-horniketa bertako akuiferoetatik gauzatzen baita.

Desorganización del drenaje superficial y la consiguiente alteración de los procesos de recarga de acuíferos subterráneos en las laderas al quedar interceptados los cauces naturales de escorrentía con pistas y rodadas de la maquinaria utilizada para la preparación del suelo y saca de los productos forestales.

Disminución tanto de la calidad como de la cantidad del agua para consumo, así como en un aumento de los costes de tratamiento del agua para abastecimiento. En Urdaibai el abastecimiento de agua está íntimamente relacionado con los acuíferos.

#### UREN ARAZKETAREN GALERA. IBAIERTZ-BASOA / PÉRDIDA EN DEPURACION DE AGUAS. BOSQUE DE RIBERA.

Ibaiertz-basoak ekosistemaren jarduera egokirako baldintzak ezartzen ditu. Begetazio hori ur-sistemako energia-sarrera arautzen du. Halaber, sustraiak honako funtzio hauek dituzte: ibai-ura araztea elikagaiak xurgatuz, higiduraren aurrean ibai-ertza babestea eta korrontek garraiatutako metakin finak geldiaraztea inguruan metaraziz. Sustraiak eta landareek, orohar, inguruaren aniztasuna bultzatzen dute eta ibaietako fauna-espeziei babesa eskaintzen diete.

Ibaiertz-basoak desagertu edo gutxitzekotan, aipatutako funtzioak (ur-arazketa, ubideen babesa, etab), galdu edota aurrekontu ekonomiko erraldoien bitartez gauzatuko lirarteke.



Suntsitutako hiliarako basoa baso-luberrien lanen ostean  
bosque de ribera destruido por roturaciones forestales

Eliminación del Bosque de Galería: Esta vegetación controla la entrada de energía al sistema acuático. Las raíces ejercen una acción purificadora del agua absorbiendo los nutrientes, protegen la orilla de la erosión y contribuyen a la sedimentación de los elementos finos que arrastra la corriente. Las raíces y las plantas en general diversifican el medio y ejercen de refugio a las distintas especies faunísticas que viven en el entorno de regatas y ríos.

En el caso de que desaparezcan o se mermen los bosques de ribera, esta labor de depuración de las aguas y de protección de los cauces que realizan se perderá, debiéndose llevar a cabo obras públicas sujetas a grandes presupuestos económicos.